

Heri Aldizkaria **Otamotz**

1998ko azaroa 42. alea



“Urretxu eta Zumarragako toponimia”
liburuak argia ikusiko du

Santa Lutzitako feria - 98

Abenduak 6. igandea

10:30 - Zumarragako 16 garren buzkantza lehiaketa, (Busca Isusiren omenezko XIII.)

12:00 - Elorriaga herriko, aizkolariari omenaldia, Zumarragako enparantzan

Abenduak 12. larunbata

11:30 - Iparragirre enparantzan Errioxa Arabarreko ardo azokari hasiera ematea.

12:30 - Urretxuko udaletxeko areto nagusian, errioxa arabarreko ardo lehiaketa.

18:30 - Beloki pilotalekuan, Goñiren omenezko VII. pilota txapelketako finalak.

22:30 - Legazpi ikastetxeko ekintza aretoan, Luzio Gabiriaren omenezko XIII. bertsolari jaialdia.

Parteartzaileak: Unai Iturriaga, Jon Sarasua, Aitor Mendiluze eta Xabier Euskitze.

Gauerdian: - Iparragirre plazan txahala sutan jarriko da.

Abenduak 13. igandea

8:00 - Urdaneta hiribideko feria tokian, abereen feria eta lehiaketari hasiera.

8:30 - Santa Lutzitako VI. argazki rallya. Ordu berean Urretxuko kultur etxera azaltzen den edonork parte har dezake.

9:00 - Urretxuko txistularien kalejira, Iratzarri dultzaineroekin batera.

9:00 - 14:00 Garaialde lizeoko patioan, fruta eta barazki lehiaketak.

Zubimusu enparantzan, ezti azoka eta lehiaketak.

Euskadi enparantzan, errezil sagar, frutra eta barazkien lehiaketak.

Kalebarren - Areizaga enparantzan, Oilasko eta kapoi lehiaketak.

Iparragirre plazan, ardo azoka. Errioxa arabarreko 11 bodegak parte hartuko dute

10:00 - Tolosako dultzainero eta Zumarraga - Urretxuko trikitilarien kalejira.

11:30 - Zumarragako musika banda eta Antziñako Ama txistulari bandaren kalejira.

12:00 - Iparragirre plazan, txahala dastatzea.

12:30 - Ederrena pilotalekuan, Gipuzkoako lehen mailako aizkolarien txapelketako finala.

.Lehiakideak: J.M.Erasun, J.M. Olasagasti, Xabier Orbegoz, J.M. Peñagarikano eta L.M. Txapartegi.

13:30 - Kalebarren Areizaga enparantzan, lehiaketa ezberdinen sari banaketa.

16:30 - Ederrena pilotalekuan, profesionalen arteko partiduak.

17:30 - euskadi enparantzan, idi proba. Probalariak: Balentiña jatetxea, Elorriaga eta Belarreta.

19etatik aurrera: - Kalebarren Areizaga enparantzan, dantzaldia Kristina eta Amaia taldeak soinua jota.

El acuerdo del siglo XXI

XXI. mendeko
AKORDIOA

L'accord du XXI siècle



www://jalgi.com/baieuskarari

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat - El 26 de diciembre tienes un compromiso - Le 26 décembre tu as un engagement



1959. urtean Galeperra elkartekok ateratako argazkia. Ezkerretik eskubira: Bernardo Bergarajauregi, Mariano Gabilondo, Manuel Peinado, Juanjo Badiola eta Ignacio Otaegi. Ordukoak bai ehiztariak... baina argazkian azaltzen diren guztiak eurek ehizan harrapatutakoak ote?



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318
Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599



Legazpi, 5
 943 726274
 ZUMARRAGA

MVRVA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
 Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
 Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



SALTOKIA

DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA

Eskulenetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu [zatoz hona](#)



ARTYRO

Ipeñarrieta, 4 943 721420
 URRETXU

UROLA

ELEKTRATRESNAK

943 720215
 S. Esnaola,2

Faxa:943 725291
 ZUMARRAGA

Galeperra elkarteak 75. urteurrena ospatu du

Ehiza eta arrantzaren inguruan ekintza ugari antolatzen dituzte

Galeperra elkarteak platinozko ezteiak ospatu zituen azaroaren 29an. Hamaiketako, meza, toka txapelketa eta bazkideen bazkariak osatu zuten jai honen egitaraua. 75 urte hauek Galeperra Casinorekin batera Zumarragako elkarerik zaharrena izatea suposatzen dute. Urte hauetan guztietan egoitza ezberdinak ezagutu ditu: "La Sindical" taberna egon zen lekua; Urretxun "Euskadiko kutxa" dagoen lokala; Legazpi kalean eta azkenik 50 hamarkadan egungo egoitzara pasatu ziren, Ibaiondo kalera hain zuzen ere.

Ehiza eta arrantzaren inguruan antolatu zen elkartearen izanik, Hasierako araudiak bazkide guztiak arrantzale edo ehiztari izatera behartzen zituen. Hau dela eta, gutxienez federatu beharra zuten. Gaur egun baldintza hori betetzea derrigorrezkoa ez den arren, oraindik ehiza eta arrantza dira elkarte honen ezaugarri nagusia. Honela, plater tiraketak, lehiaketa ezberdinak, Pagotxetako ehiza postuen zozketa...antolatzen dituz-



Galeperrako kideak 1958an Errioxatik bueltan basurdea ehizatu ondoren.

te. Bestalde, inguruko herrietako ekintza ezberdinetan ere parte hartzen dute: Izaba ibaiko arrantza txapelketan eta Ondarruko itsaso arrantza lehiaketan kasu. Horrela, 1981ean Tomas Lekuonak, "Txapel", bazkideak Espainiako amuarrain arrantza txapelketa irabazi zuen.

Musean ere trebeak dira nonbait

Galeperra elkartekoak, 1983 eta 87an Legazpi Urretxu eta Zumarragako elkarrekin arteko mus txapelketa irabazi zuten. 83an Jacinto Tejedor, Sixto Gartzia, "Lauren" Busca eta Manuel -"txorizero"- izan ziren garaileak. 87an, berriz, Joxe Agirre, Joaquin Izagirre, Jose Mari Fonseca eta Manuel Iraola.

Ehizari dagokionez, makina bat saio eginak dira. Jexux Mari Glez. de Audikana bazkideak esan digunez, garai batean Errioxa aldera joaten ziren bertako artzaiek erabiltzen duten bidean ehiza egitera. Toldo handi bat eta janariak eraman eta bi aste pasatxo igaro-tzen zuten bertan ehizean. Urte batean sekulako elurtea izan omen zen eta bertan geratu omen ziren ez aurrera eta ez atzera eguraldiak onera egin arte.

Ehiza eta arrantzaren inguruan hamaikatoxora gora behera bizitakoak dira beraz, Galeperrako kideak. Ziur urteurrena ospatzeko antolatutako bazkarian pasadizo ugari gogoratzeko parada izan zutela. Ea mendeurrenera Athleticetako bezain sasoitsu heltzen zireten!!



Sariak ere banatu zituzten Galeperraren urrezko ezteietan (1973).

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN VIII. GEHIGARRIA



Azken egun hauek ez dira kanpoko kirola praktikatzeko egokienak. Daramagun udazkena ondo hezea eta hotza izaten ari da. Hala ere, giro txarrari aurre egin eta kirolean gogor ari zaretela badakigu. Gainera, Santa Lutziak eta Gabonetako oporrak gainean ditugu eta izango duzue merezitako atsedenaldia hartzeko parada. Aurten beharbada gure mendiak elurrez jantzita izango ditugu eta beste kirol batzu egiteko aukera izango da: mendian elurraz gozatuz ibili, eskiatu, trineoan ibili... (ahal bada elur gaintik, ez azpitik).

TXIKIMOTZ gehigarriari dagokionez, ikusiko duzuen bezala, azkeneko orrialdean eskola kirolean parte hartzen duen talde bati eginiko elkarrizketa sartu dugu. Aurrerantzean ere honela jarraitzea espero dugu, zuek baitzarete gehigarriaren protagonistak.

Ondo pasa Gabonak eta kirola egiten jarraitu!!!

TXIKIMOTZ

ATLETISMOKO EMAITZAK

ALEBIN MAILA

60 M. HESIAK- MUTILAK

1. Aitor Calvo (Ikastola)
2. Urtz Kalparsoro (Haztegi)
3. Jorge Martin (La Salle)

4X60m errelebuak mutilak

1. Haztegi B
2. La Salle B
3. Haztegi C

60 M. MUTILAK

1. Mikel Bereziartu (Haztegi)
2. Eneko Ausin (Haztegi)
3. Xabier Jorge (Gainzuri)

400 gr. BALOI JAURTIKETA MUTILAK

1. Abel Gajete (La Salle c)
2. Unai Pérez (Haztegi D)
3. Unai Plazaola (Ikastola c)



3 KILOKO PISU JAURTIKETA MUTILAK

1. Imanol Aramendia (Gainzuri B)
2. David La Rosa (La Salle C)
3. Jokin Uria (Haztegi B)

LUZERA SALTOA MUTILAK

1. Jon Lonbide (Haztegi D)
2. Mikel Morillas (Ikastola B)
3. Joane Izagirre (Haztegi A)

2000 M. LASTERKETA MUTILAK

1. Jon Egia (Ikastola C)
2. Gaizka Mendinueta (Haztegi D)
3. Andoni Biain (Gainzuri A)

ALTUERA SALTUA MUTILAK

1. Asier Gabiria (Haztegi B)
2. Jon Telleria (Haztegi C)
3. Borja Gonzalez (Haztegi D)

4X60 M. ERRELEBUAK NESKAK


1. Haztegi B
2. Ikastola B
3. La Salle A

60 M. HESIAK NESKAK

1. Izaro Mujika (Haztegi A)
2. Maddi Alkorta (Haztegi D)
3. Neike Zabaleta (Ikastola A)

60 M. NESKAK

1. Ainhoa Zubizarreta (Haztegi)
2. Amaia Torner (Ikastola B)
3. Nerea Ormazabal (Gainzuri)



300 GRAMOTAKO BALOI JAURTIKETA NESKAK

1. Elena Roldan (Ikastola B)
2. Itziar Pérez (Haztegi B)
3. Maialen Carrillo (La Salle B)

ESKOLA KIROLA (98-11-21)

2 KILOTAKO PISU JAURTI-KETA NESKAK

1. Elena Roldán (Ikastola b)
2. Clara Valbuena (D. Agirre)
3. Alazne Mantxola (Haztegi A)



ALEBIN MAILAKO ATLETISMO SAILKAPENA TALDEKA (MUTILAK)

1. HAZTEGI B	134 p.
2. HAZTEGI D	132 p.
3. GAINZURI B	122 P.
4. LA SALLE C	121 P.
5. GAINZURI A	117 P.
6. IKASTOLA C	108 P.
7. HAZTEGI C	102.P
8. LA SALLE B	102 P.
9. DOMINGO AGIRRE	97P.
10. LA SALLE A	93 P.
11. IKASTOLA A	90 P.
12. HAZTEGI A	84 P.
13. IKASTOLA B	81 P.

ALEBIN MAILAKO ATLETISMO SAILKAPENA TALDEKA (NESKAK)

1. HAZTEGI B	146P.
2. IKASTOLA B	144P.
3. HAZTEGIA	132P.
4. GAINZURI	129P.
5. IKASTOLA A	115P.
6. LA SALLE B	113P.
7. LA SALLE A	103P.
8. DOMINGO AGIRRE	97P.

LUZERA SALTOA NESKAK

1. Miren Retegi (Gainzuri)
2. Ane Bergaretxe (Haztegi A)
3. Alejandra Mendizabal (Ikastola)

2000 M. NESKAK

1. Alaitz Mujika (Haztegi B)
2. Itziar Ureta (Haztegi A)
3. Oihana Manuel (Ikastola B)

ALTUERA SALTUA NESKAK

1. Elena Del Canto (Haztegi B)
2. Leire Lanberri (Ikastola B)
3. Edurne Fernández (Gainzuri)



"Gure taldea oso ona da, gehienetan irabazi egiten dugu"

Noiz hasi zineten eskola kirolean parte hartzen?

Orain bederatzi urte ditugu eta duela bi urte hasi ginen entrenamenduetan eta jolasten. Ainhoa aurten hasi da.

Astean zenbat egunetan entrenatzen duzue ?

Astean bitan izaten ditugu entrenamenduak, astelehenetan eta ostegunetan. entrenamenduetara joatea asko gustatzen zaigu, gainera gure entrenatzaileak primerakoak dira, oso onak. Partidua jolastea, entrenamenduetara joatea baino gehiago gustatzen zaigu. Partiduak primerakoak izaten dira.

Zenbat kirol egiten dira eskola kirolean?

Gu orain futboleam ari gara, baina saskibaloia, eskubaloia, pilota, atletismoa eta igeriketa ere egiten dira. Futbolarekin bukatzean hauetako beste kirolen batekin hasiko gara.

Zein da gehien gustatzen zaizuen kirola?

Futbola gustatzen zaigu gehien, gainera gure taldea oso ona da. Batisi hala ere, saskibaloian aritzea da gehien gustatzen zaiona.

Zer moduz zoazte

sailkapenean?

Oso ondo. Partidu guztiak irabazi ditugu azkenaz. Azkenekoan 3na berdindu dugu. Oso onak gara, gure mailan Gain Zurikoak dira onenak, baina gu ere oso onak gara.

"Gure entrenatzaileak primerakoak dira, on onak"

Haunditan kirolariak izatea gustatuko litzaizueke?

Bai, asko. Guri kirola asko gustatzen zaigu, futbola batez ere. Futbolariak izatea nahiko genuke,

Ainhoak eta Jonek Aurrelari poistuan jokatu nahiko lukete, sekula ez defentsa bezela. Juleni futboleko atezaina izatea gustatuko litzaioke eta Batisi tximindularia izatea.

Zein da zuen kirolaririk gogokoena?

(Julenek eta Ainhoak) De Pedro. (Batisek) Kovacevik. (Jonek) Luis Perez.

Eskola kirolean izango da hala ere gustuko ez duzuen zerbait?

Bai, Larunbata goizetan partidua ditugunean euria egitea. Hori ez zaigu gustatzen. eguraldi ona nahiago dugu jolasteko, gure taldeak oso ondo jolasten du bero egiten duenean.



Jon del Rio, Batis Mendizabal, Julen Martin eta Ainhoa Sanz

1 - Nortzuk uste duzu osatuko dutela


Jaurlaritza berria?

2 - Nortzuk gustatuko litzaizuke osatzea?



Agustina Etxaniz

1-P.N.V., P.S.O.E. eta E.A.
2-P.N.V., E.A. eta E.H.




Miguel Cristobal

1-P.N.V. eta E.A.
2-Alderdi guztiak egon beharko lukete.




Rosario cuesta

1-P.N.V., eta E.A.
2-P.N.V., eta E.A.



Angel Segura

1-P.N.V., P.S.O.E. eta E.A.; P.P sartzea oso zaila iruditzen zait.
2-P.N.V., E.A. eta E.H.



Roberto Diez-

1-P.N.V. eta P.P; P.P. sartu egingo da azkenean
2-P.N.V. eta P.S.O.E.



Raquel Ortiz

1-P.N.V., E.H. eta E.A.; P.S.O.E.k ez du amore emango.
2-P.N.V., E.A. eta U.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDYRNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



Mundo Mejor ondoko Basagasti etxeen inaugurazioa

Azaroaren 9an inauguratu ziren Basagasti izeneko lursailean eraiki diren babes ofizialeko etxeak. 80 etxebizitza eraiki dira eta 40 jabeei jada euren etxeetako giltzak eman zaizkie. Beste 40 etxebizitzak ere amaiturik daude, baina abendua inguruan jasoko dute etxebizitza sozial katalogazioa eta ordura arte ezin dira jabeen esku utzi. Inauguraziora Eusko Jaurlaritzako lurralde ordenantzako kontseilaria den Patxi Ormazabal eta bere saileko zenbait kide etorri ziren.

Lehenago Jaurlaritzatik etorritakoei eta Pello González, Urretxuko alkateak, lan bilera izan zuten Urretxuko udaletxean eta ondoren zenbait proiektuen berri eman zuten prentsaurreko baten bidez. Urretxuko udalak 28 milioi pezeta jaso behar ditu Patxi Ormazabalen sailaren eskutik eta Labeaga kaletik Basagoitiko

etxeetara joango den bidea egiteko erabiliko dira.

Prentsaurrekoan alde zaharra eraberritzeko lortu den akordioaren berri ere eman zen. Honen arabera udalak alde zaharrean zenbait etxe erosi eta ondoren Eusko Jaurlaritzari emango dizkio eraberritu ditzan. Proiektuaren arabera 23 etxebizitza egingo dira eta horretarako 123 milioi pezetatako aurrekontua prestatu da.

Logela bakarreko hiru etxebizitza, bi logelatako 14 eta hiru logelatako 6 eraikiko dira Jauregi eta Nekolalde kaleak hartzen dituen lursaileko etxea bota ondoren.

Lursailaren kokapena dela eta, ezin dira garajeak eraiki, baina etxe guztiak igogailua izango dute. Datorren urteko udaberria aldera hasiko da alde zaharraren birgaitze lana.

Estatuko gobernuak 167 milioitako dirulaguntza emango du Zelai-Arizti antzokia egokitzeke

Kultura eta Fomentu ministeritzek Zelai-Arizti antzokiaren egokitze lanak burutzeko beharrezkoa den diruaren %50 ematea erabaki dute. Egokitze lanen aurrekontua 334 milioitan finkatu zenez, estatuak 167 milioi pezetatako laguntza emango du.

Dena den, proiektu osoaren aurrekontua 427 milioi pezetatakoa da. Zumarragako udalak 85 milioi ordaindu zituen lokala erosteko eta egokitze lanen behin-betiko aurrekontua 342 milioitakoa da.

Honi aurre egiteko udalak beste 46 milioi jarriko ditu, Europar Batasunak 26 milioiko laguntza eman du eta arestian aipaturiko estatuko ministeritzek 167 milioi pezetatako laguntza dago.

Proiektua aurrera ateratzeko behar den gainontzeko dirua, Foru Aldundiaren bidez heltzea espero da. Udala erantzunaren zain dago eta Juanjo Sagarna, kultura batzordeko presidentearen ustez "estatuko ministeritzek lagundu badute, Foru Aldundiak ere lagunduko duela suposatzen dugu. 125 milioi pezeta inguruko dirulaguntza espero dugu". Udaleko arduradunen esanetan antzoki berria 2000. urterako zabalik egongo da eta erabilera anitz izango ditu.

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

ecu

☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXXU

Mikele Aldasoro, ikastolako irakaslearen Euskal Hizkuntza eta Literatura D.B.H. 3 liburua, saritua

Urtero Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Isaac Lopez Mendizabal sariak ematen ditu irakasmaila ez-unibertsitarioetan euskarazko libururik hoberenak saritzeko. Mikelek Begotxu Olaizola oriotarrarekin egindako liburuak euskara irakasteko testu-liburu onenaren saria jaso du. Ez da hau egiten duen liburua, ezta jasotzen duen lehen saria ere. urte mordoxka bat darama ikastolan irakasle lanetan eta erreforma planteatu zenetik Ikastolen Elkarterako testugintzan ere. Azken bost urteetan DBHrako Ostadar proiektuaren barnean aritu da hizkuntza arloko testuliburuak egiten lantaldearen koordinatzaile moduan. Liburu sarituak hezkuntza erreformak ekarri zituen aldaketei

erantzuna ematen die. Honen arabera hizkuntza komunikaziorako tresna da eta liburuaren helburua tresna hau erabiltzen erakustea da: Ikasleek informazioa ematen, eztabaidatzen, sentimenduak adierazten, arrazoitzen...ikas dezaten. Azken finean, eguneroko bizitzan ondo komunikatzen irakastea da helburua.

Liburuak euskal herriko ikastetxe askotan erabiltzen da eta irakasleei mintegi bidez liburuaren metodoa azaltzen zaie. Metodo honen barnean eta poesiaren inguruko unitate didaktikoaren bideoan Andoni Salamero, Iñaki Artolazabal eta Amaia Artolazabal herritarrek ere parte hartu zuten. Zorionak, Mikele!





Alaitz Zabalo eta Miren Josu Etxeberria herritarrek olentzero panpina diseinatu dute

Lagun batzuek euskal mitologi eta ohituri buruzko ikerketak egiten hari zirela, euskal herriko etxeak apaintzeko olentzeroren panpinik ez zegoela konturatu ziren. Alaitz eta Miren Josurekin harremanetan jarri ziren eta hauek panpinaren diseinua egin zuten. Expresio eta jantziak bereziki zaindu zituzten, kalitatezko materialak erabiliz. Panpinarekin euskalki ezberdinetan dituen adierak eta "Olentzero eskea" ilustratzen duen marrazkia dator. Olentzero panpina Euskal herri osoan salgai izango da eta Santalutzitan ere gure artean izango dugu etxera eraman nahi duenarentzat.

Zumarragako Udala Interneten

Zumarragako udalak Web orria zabaldu du Interneten foru aldundiaren presidentzia sailaren eta IZFE enpresaren lankidetzaz. Web orri honen helburua, informazioa eskaintzeaz gain, hiritarra eta administrazioaren arteko harreman sakontzea eta erraztea da. Honetarako komunikazioa bultzatuko duten hiru gune ezarri dira. Alde batetik eztabaidarako prestatu dena, herritarrek euren eritzia eman eta besteena jaso dezaten. Bestetik formulario bidez herritarrek kexak eta iradokizunak aurkezteko aukera izango dute. azkenik Internet bidez udalarekin jestioak egiteko aukera izango da: Beharrezko informazioa jasoz zein zuzenean Internet bidez burutuz.

Zumarragako udalaren Web orria ezagutu eta eskaintzen dituen zerbitzuez baliatu nahi duenak WWW. ZUMARRAGA.NET helbidera joatea besterik ez du.



RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700 ☎ 725682
URRETXU 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

GORETTI

JANTZIDENDA

MODAKO
ARROPAK

Secundino Esnaola, 34 ☎ 943 724996

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ☎ 943 721370 ZUMARRAGA

Jose Luis Padronek bere lehen liburua aurkeztu du

Jose Luis Padron aski ezaguna da Urretxu eta Zumarragako kultura munduan; Gehienbat bere lan literario-agatik, baina baita ere HITS&FITS taldearen sortzaileetarikoa bat izan zelako. Orain bere lehen bakarkako olerki bilduma plazaratu du. Kultur saltsaren perrejila dugu Jose Luis; baina nor da benetan J.Luis Padron?


Oso zaila da jakitea. Guztiok bizitza oso baten emaitza gara. Gauza asko gara aldi berean: Azkenean, gizon bat mundu honetan. Mundu hau ikuspegi kritiko batetik begiratzen duena eta urteen polderioz gero eta kontraesan gehiagorekin aurki-tzen dena. Hartu dudak aukera literaturaren bidetik joatea da. Ez da kapritxo bat, munduarekiko jarrera bat baizik.

Nola sartu zinen bide horretan?

Oso gaztetan ohartu nintzen hau zela nire bidea. Ikasten ari zarenean bada-kizu zein dituzun gogokoena ikasgaiak eta nire gustukoena literatura zen. Artisten bizimoduak, pentsaera, jarrerak, konpromezuak...Hunkitu egiten ninduten. Nik ere esatekoak nituela konturatu eta poemak idazten hasi nintzen. Poesian aurkitu nuen Besta inon ez nuela topatzen konturatu nintzen. Lasaitasun handia eta nire burua hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen dit. Idazteko beharra dut eta idaztean neure buruarekin eta ondorioz bizitzarekin eta gizartearekin gustura sentitzen naiz. Ez dut pentsatu nahi idazteko aukera galduko banu zer egingo nukeen, nik uste dut gaixotu egingo nintzatekeela.

Zein ikasketa burutu zenituen grina hau bideratzeko?

Euskal filologia egiten hasi nintzen, baina ez nuen amaitu. Nik idazten ikasi nahi nuen eta ez dago horretan lagunduko dizun ikasketarik. Tristeia izan zen, Unibertsitatean sartu eta laugarren ikasturtera arte literaturarik ez nuela emango jakin nuen. Artista eta idazle mundua jorrazteko beste bide bat hartu behar zela erabaki nuen. Herrian bertan hitzaldi eta errezitaldiak antolatuz, literatura unibertsitatean baino hurbilago nuela ikusi nuen. Beste idazle batzuen lanak irakurri eta bertako idazleekin harremanetan jarriz jantzi dut neure burua. Pako Aristi, Patxi Ezkiaga, Peio Zabaleta, Harkaitz Kano...eta batez ere Felix Marañña izan da gehien lagundu eta erakutsi didana. Oraindik ere neure



Jose Luis bere emazte eta lankide den Conccetarekin

burua hezitzen ari naiz eta hauek dira nire unibertsitateko partaideak.

Noiz hasi zinen prestatzen kale-ratu berri duzun liburua?

Duela urte eta erdi inguru. Beti ere beldurraren inguruan mugitzen naiz. Sariak irabazten nituen, gauzak publikatzen ziren...baina ez nintzen urutirago joaten. Pako Aristi beti zirikatzen aritzen zen, baina nik ez nuen erabakia hartzen. Azkenean Foru Aldundiak sormen literario-rako beka bat eman zidan eta aitzakia horrekin poemario luze bat idazten hasi nintzen. Prestatu ondoren Pakok argitalexteetara eramane eta bertako arduradunak aurkeztuko zizkidala esan zidan. Nik baiezta eman nion, oso gustuko ditudan bakardade eta lasaitasuna utzi eta nire lana kale-ratzea erabaki dut. Ibilbidea Ereinen hasi eta bukatu dugu. Baiezkoa eman ziguten bai poema bildumari bai haiek ilustratzeko proposamenari ere. Hitza bihurtu naiz eta liburuaren bitartez harreman bat sortuko da idazle eta irakurlearen artean. Biziki hunkitzeko birtutea duten pertsonekin harreman estu bat bilatzen dut.

Zein da marrazkien esan nahia eta helburua?

Poema bakoitzak bere marrazkia darama. Kontxik ideiak margotu egin ditu, batzuetan poemaren interpretazio bat eginez eta

besteetan bertsio berri bat eginez. Ez da ohikoa margolaria eta idazleak liburu batean bat egitea baina nik uste dut bi espresio modu elkartzeko direla eta egokia dela hau. Emaitza ederra da eta arrazoiak bistakoak dira: Bizitza elkarrekin konpartitzea erabaki genuen unetik, elkarrekin lan egitea maitasunaren ondorioa izan da.

“Etorkizunean gailegoz ere idatzi nahiko nuke”

Zein gai jorrazten ditu liburuak?

Bizitzaren bi alderdi nabarmenak biltzen ditu: Tragikotasuna eta bizitzaren zoragarria. Bi kontraesan hauen artean aurkitu ditudan tirabirak jorrazten ditut bizitza goraiatzeko. Ezezko forma asko agertzen da neure burua munduaren parean, bizitza honetan baiezatzeko. Egungo gizartearen kritika dago, gizakiaren egungo nondik norakoa salatuz, baina gizon berri bat baieztatuz. Azken finean liburuan bizitzare-

kiko maitasuna nagusi da. Alegia, bizitza bizi egin behar da gehiegizko erreflexioetan nahastu gabe.

Oraingo hau ere poesia lana da, zergatik ez prosa?

Erosoen sentiarazten nauen sor-kuntza lana da. Askatasun handiagoa ematen dit edozein gai edozein erataria lantzeko. Indarra, xamurtasuna...askatasun handiagoz adierazteko aukera ematen dit. Lehenbizi ondo idazten jakin nahi nuke, nahi dudana hitzetan esaten jakitea. Hau bizitza osoko lana izango da eta momentuz ez dut prosa egiteko behar berezirik. Ipuinak egin izan ditut neure burua horretarako gai ikusi dudanean, baina orduan ere ez nintzen oso gustu-
ra gelditu emaitzarekin.

Literatura eta arteak badute merezi duten estimazioa, zure ustez?

Nik uste ezetz. Izan ere, egun, merkatuak agintzen du, eta poesia ez da sekula honekin ondo konpondu. Baina niri honek ez nau kezkatzen, axola nauena egiten den poesia kalitatezkoa izatea da, poesiak duen ospea ez galtzea. Hartu dugun bidea gizartearen ikuspegitik porrotaren bidea da, baina norberak dituen ametsengan sinestu beharra dago. Gizarteak inposatu nahi dituen baldintzetara makurtu nahi ez duen pertsonak txori erratuak bilakatzen dira. Hauek dira nire liburuaren protagonistak, izenburuan adierazten den bezala.

Zer nolako jarrera dute instituzioek txori erratu hauekin?

Instituzioek ez dute kultura errentagarria ikusten: ez ekonomikoki, ezta bestela ere. Kulturak gauzak aldatzeko jarrera batera eraman gaitzake eta botereari ez zaio komeni. HITS-FITS taldeak 96an kulturaren zenbait esparru betetzeko proposamena aurkeztu zuen eta udalek ez ziguten kasurik egin. 96ko idatzia gure testamentua izan zen eta instituzioekin batera lana egiteko aukera galdu zen. Oraindik ere jende asko dago lanerako prest eta azpiegiturak dirulaguntzak eta udalen interesak beharrezkoak dira

Azken lan hau euskeraz idatzi duzu, baina gazteleraz ere idatzi izan duzu.

Bi hizkuntzak ere nireak bezala sentitzen ditut, baina benetako erraztasuna lortzeko bidean egongo naiz beti. Askorentzat euskal herrian gazteleraz idaztea pekatua da, baina nik ez dut halakorik proposatzen. Hizkuntza batean zein bestean inolako aurreiritzirik gabe idazten dut. Bestalde, euskal literatura egoera onean dagoela uste dut, gero eta gehiago gara euskeraz dakigunak eta euskeraz irakurri zein idazteko prestatuak gaudenak. Euskara zein

euskal literaturari etorkizun handia ikusten diot. Hizkuntza maite duenak beti erabili, irakatsi, eta ondorengo belaunaldiei utziko die. Euskara gure bizitza da eta ez erabiltzea gure bizimoduari uko egitea da. Etxean jaso ditudan bi hizkuntzak euskara eta galegoa direnez etorkizunean galegoz ere idatzi nahiko nuke, asko maite dudana beste kultura bat da.



HITZETZ HITZ

Oteiza.

Eredu bat. Kultur iraultzaile baten irudia datorkit burura. Bakardadean egin du lan urte askotan.

Guggenheim.

Ekintza kultural moduan ez naiz joan eta ezta joango ere. Euskal kulturak gauza asko galdu ditu bere erruz. Gure Guggenheima Arantzazun dugu.

Atxaga.

Idazle bikaina eta hizlari bikainagoa. Euskara modernitatean lekutu eta munduko beste hizkuntzen parean jarri duen idazlea.

Pako Aristi

Bereziki maite dugun pertsona eta asko lagundu diguna. Eguneroko bizitzaren kronika hondoen islatzen duen pertsona. Euskal errealismo magikoaren aitzindaria.

Hits-fits.

Urretxu-Zumarragako kultur hondamendiari erantzuna emateko ausardia izan zuen talde bat.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA




Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13




Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 724482
C/ Labeaga, 2 - Tel. 72 44 82 - URRETXU



alejandro albisua
kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Urretxu eta Zumarragako toponimia liburua argitaratuko du Zintzo Mintzok


Jose Luis Ugarte legazpiarrak 2700 toponimo inguru jaso ditu

Zintzo Mintzoren eskutik Jose Luis Ugartek "Urretxu eta Zumarragako toponimia" lana argitaratu du. 1994 Zintzo Mintzok lan bat egiteko beka deialdia egin zuen. Baldintzak lana euskaraz eta Zumarraga eta Urretxuri buruzkoa izatea ziren. Aurkeztutako egitasmoen artean J.Luis Ugarterenak jaso zuen beka. 1996an Zintzo Mintzori lana entregatu arte J.Luis baserri baserri aritu zen informazio eske, Bildutakoa artxiboetan kontrastatu eta ondoren plano batean kokatu zuen. Ondoren Euskaltzaindiako zenbait kide-rekin bilerak izan eta hauek "Onomasticon Vasconiae" bilduman onartu zuten. Azken urte honetan liburua argitaratzeko egutegia ezarri eta berau jarraitzen joan da.

Liburuaren mamia esku artean izanik, harik eta modu txukunenean aurkeztu beharra zegoen. Liburuak ze itxura hartu behar zuen ikusi zenetik Ugarte eta Zintzo Mintzo kosta hala kosta honen atzetik ibili dira. Bestalde, J.Luisek jasotako informazio berria sartu eta toponimoak normalizatzeko ere erabili du azken urte hau. Fase honetan jende askok parte hartu du: Dirua lortzen dela, ordenadorearen aurrean lanari nahi zen itxura ematen dela...

Irailaren erdialdera imprentarekin lanean hasi zen eta lan mardul hau kaleratzeko prest dago jada. Urtarrilean zehar aurkezpen ezberdinak egin ondoren salgai izango dugu 3000 pezetatan datozen balaundientzat ondare paregabea den liburua.

Toponimia liburuak Urretxu eta Zumarragako baserri, mendi eta landetako toponimoak biltzen ditu. Herri barruko toponimoak biltzeke geratu dira eta beste urtebeteko lana izango litzateke. Liburuak bi atal nagusi ditu. Alde batetik Urretxuko toponimoak daude alfabetikoki zerrendaturik eta bestetik Zumarragakoak. Toponimoak dagozkien zenbait xehetasunekin datoz, eskubiko koadroan ikusi daitekeen moduan:



Urte askotako lana burutu du Jose Luis Ugartek

Toponimoa: SALTSAMENDI.

Kontzeptua: 10104/ Baserria

Iturriak: 1741: ZUA8 / *Salsamendi*

1814: ZUA4 / *Salsamendi*

1871: ZUA20 / *Salsamendi*

1928: Plano 16 / *Saltxamendi*

1993: EE20 / *Salsamendi*

Ebakera: 1. *santsámendi* / 2. *saltxámendi*

Victoriano Intxausti (Saltxamendi baserria), 1995 (1)

Miguel Arambarri (Elorriagagoikoa baserria), 1998 (2)

Kokagunea: 88-30

Adierakideak: *Sagastizabal*

Oharrak: *Saltsamendi* izena ez dirudi oso zaharra denik

Zumarragan, XVIII. mendeko agirietan azaldu baitzaigu lehen aldiz gure miaketetan. Garai horretan *Sagastizabal* baserri deitura ezkutatzen hasi zenez, ordezkatzeko bat gertatu zela ematen du.

Sagastizabal, gainera, inoiz *Altuna* eta *Soraiz* etxeen ondoren deskribatzen da ("Casa y casaña de Altuna (...) que confinan con tierras y heredades de las Casas de Sagastizabal y Soraices", 1775, HIPO5: 90), eta *Saltsamendi* -rentzat ere balio du deskribapen horrek.

1928an sute batek kalte handiak eragin zituen. Diotenez, menditik garoa ekartzeko erabilitako gurdia ren ardatza (zurezkoa) berotu eta su hartu zuen.

Toponimo bakoitzaren informazioaz gain liburuak beste hainbat osagarri ere baditu: Urretxu eta Zumarragako argazkiak (Hauetako batzuk oso zaharrak), toponimoak kokatu eta ulertzeko zenbait plano txiki eta tolestutako plano haundi bat toponimo guztiak kokatzeko.

Informanteekin aurkezpenak Santa Barbaran, Antion eta Agiñan izango dira

Ikusi daitekeenez, "Urretxu eta Zumarragako toponimoak" liburua benetan lan sakona eta itxura onekoa da, Euskaltzaindiak bere bilduman onartu izana guztiz adierazgarria delarik.

Urretxu eta Zumarragan baserritarrekin egin den lehenengo lana da. Toponimia lan sakona da. Eguberriak ondo-

ren Aginaga, Santa Barbara eta Antioko elkarteetan liburuaren aurkezpen ezberdinak egingo dira. Bertarako gonbitea luzatuko zaie informante guztiei ekitaldi xamur honen bitartez eskerrak emateko.

Aurkezpen ofiziala, berriz beranduxeago egingo da, Udala, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, Kutxa eta Euskaltzaindiako ordezkariekin.

Baina burututako ikerketa lan guztia ez da liburuan soilik islatuko. Zintzo Mintzok beste bi proiektu aurrera ateratzeko erabiltzea pentsatua du. Alde batetik Urretxu eta Zumarragako toponimoak plano batetan bilduko dituen kartel handi bat atera nahi da, 50X70zm neurrikoa. Bestetik Zintzo Mintzok hiru ibilbide prestatu behar ditu bi herriotako toponimo askoren kokagunea ezagutzera emateko. Triptiko batzu aterako dira ibilbideak azalduz, eta ikastetxeetako gazteentzat ibilaldiak antolatuko dituzten begiraleak prestatuko dira. Honela bi herriotako leku ezberdinak ezagutu ditzaten.

Jose Luisek egindako lana ez dago diru trukean ordaintzerik. Zintzo Mintzo gustura dago emaitzarekin, izan ere, Zintzo Mintzo bera izan da Jose Luisen proiektuan sinetsi ondoren finantziaketa bideratu eta lana kalean ikusi arteko pakarik izan ez duena. Euskara normalizatzeko beste pausu txiki bat baino ez dugu eman.



Baserritarrek laguntza paregabea eskeini diote Jose Luisi

CHIARA

**Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

Madaia plazoletan
20700 URRETXU

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39 ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306
ZUMARRAGA

Eskubaloia errotzen ari da herrian

Sei talde ditu egun Urola eskubaloit taldeak

Goierrri elkartearen eskubaloit taldea desagertu ondoren, Urretxu eta Zumarragan kirol honek indarra galdu zuen. 1982an eskubaloian jokatzen zuen neska talde batek udaletxearen laguntzaz Urola eskubaloit taldea sortu zuen. Haseran La Salle ikastetxeko patioan jokatzen bazuten ere, gauzak asko aldatu dira eta egun 6 talde dituzte maila ezberdinetan. Hauetako batzu oso ondo dabilta eta talde nagusia lehen postuan dago bi partidu berdindu eta gainontzeko guztiak irabazi ondoren. Urola eskubaloit taldeko arduradunek badute, beraz, pozik izateko arrazoirik.

egokitu beharra... Igotzea oso zaila da, hau dela eta jarraitzaileen bultzada oso garrantzitsua da.

Iaz ere primeran aritu ondoren igoera ligaxka jokatu zenuten, aurten zerbait aldatu al duzue?

Bi jokalarit berri ditugu: bat Balentziatik etorri da eta bestea Arrate taldetik. Mutil hau Oñatikoa da baina Arratera joan baino lehen hemen ibilia zen. Hala ere gure ezaugarri nabariena esperientzia da. Oso ondo ezagutzen dugu elkar eta gero eta hobe burutzen dugu talde lana. Bestalde, aurten astean hiru entrenamendu egiten ditugu eta iaz bi bes-

terik ez. Dena den, lana dela eta ostiraletan soilik elkartzen gara denok. Entrenamenduetan arlo teknikoa lantzen dugu batipat, nahiz eta fisikoari ere garrantzia ematen diogun.

Zeintzu dira herri mailako eskubaloit talde baten arazo nagusiak?

Dirua lortzeko ate joka ibili beharra. Gastuak asko zaintzen ditugun arren talde guztiak aurrera egiteko bi milioi pezeta baino gehiago behar ditugu. Udalak 600.000 pezeta inguru ematen ditu eta gainontzekoa zozketen bidez, karteletako publizitatearen bidez... lortzen dugu. Hala ere, merezi du lana egiteak. Talde

Zein da egungo egoera?

Urolan 4 talde ditugu eta nesken bi talde Legazpi eta Ordizikoekin batera jokatzen ari dira Goierrri izenaz. Talde nagusia Euskadi mailako bigarren mailan jokatzen ari da eta oso ondo dabil, joan den astean Legazpikoen aurka jokatu zuten partidua berdindu zuten arren. Hala ere, oso zaila da igotzea. "1. Territorial" izeneko maila honetan talde guztiak oso paretsu dabilta eta sailkapenean behean daudenak ere edonori irabazteko gai dira. Liga amaitu ondoren ligaxka bat jokatzen da Arabako onenaren, Bizkaiako bi onenen eta Gipuzkoako 3 lehenengoen artean. Bi onenak "2. nazionalera" igotzen dira. Ligaxka honetan beste hamar partidu jokatzen direnez, denboraldia asko luzatzen da, ekainean amaitzen bait da. Hau da gure arazo nagusia: lesioak, lanorduei



Urola eskubaloit taldearen sorrera bultzatu zuen taldea

<p>AVENIDA BUHAME EZKURRA FLORIDA GAU MOTZ</p>	<p>URRETXUKO GIROA</p>  <p>URRETXUKO ALDAPA</p>	<p>GOIKO KALE LAKET NAVARRO OSABA</p>
--	---	---



Urola taldeak sari ugari jaso ditu aurtan

nagusia lehen postuan dagoela nabaritzen da eta gainontzeko lekuetan baino zaletu gehiago joaten da gure partiduak ikustera. Jarraitzaile sutsuak ditugu eta Legazpi eta Ormaiztegiko taldeen aurkako partiduak sekulakoak izaten dira. Beste leku askotan, ordea, dozena bat lagun soilik joaten da neurketak ikustera. Beste arazo garrantzitsu bat epaileena da. Askotan epaile bakarra etortzen da partidak arbitratzera eta noski,

ezin ditu ikusi jokalarien arteko kolpe eta borroka guztiak. Batzuek ikusten dutena behintzat zigortzen dute, baina beste batzuek hori ere ez.

Nolakoa da eskubaloien egoera orokorrean?

Maila nagusietan ez du nahikoa jende erakartzen eta hau ikusita enpresek ez dute eskubaloian dirua inbertitzen. Bidaso, Arratek... behera egin dute diru arazoak hasi direnean. Diru gutxi dagoenean

somaten da nor ari den benetako lan ona egiten. Egun estatu mailan Valladolid eta Granollers dira lan onena burutzen ari direnak. Bartzelonak ez du batere meriturik, futbolaren bidez lortzen duen diruaz sekulako nagusitasuna lortzen du gainontzeerako. Futbolaren laguntza izango ez balu ez luke batere dirurik izango. Garrantzitsuena harrobiaz ondo lan egitea da, berau da diru

arazoei aurre egiteko modu bakarra.

Gazteek ere eskubaloia gustoko al dute Urretxu-Zumarragan?

Lehen asko kostatzen zen jendea eskubaloian jokatzeko komentzitzea, baina gaur egun egoera hobea da. Urolako kadete taldea probintzi mailan onena da eta jubenil eta junior mailakoak ere oso ondo dabilta. Iaz kiroltasun saria eman zieten hiru talderi. Bestalde, nesken kadete taldeko Miren Begiristain bere mailako golegile nagusia da eta Iker Serrano Euskadik selekzioan dabil. Guzti honek gazteek eskubaloiarekiko zaletasuna badutela erakusten du.

Urte guzti hauetan denetarik ikusiak izango zarete?

Behin beste taldeak baino gol bat baino sartu eta epaileak gol hori apuntatu beharrean gol bat kendu zigun. Honela gol bategatik irabazitako partida galdutzat eman ziguten. Beste batetan neskak Pasaian jokatzen ari zirela, bertako plazan, manifestazio bat suertatu zen. Poliziarengandik ihesi manifestari mordo batekin aldageletan sartu ziren ziztu bizian.

Urretxu eta Zumarragarren sailkapena Behobia-Donostia lasterketan

88	Julio Pascual	1:10:59	Zumarraga	3717	Julio Maroto	1:40:05	Urretxu
103	Ricardo Pérez	1:11:50	Zumarraga	3927	Ane M. Urmeneta	1:41:07	Urretxu
109	Jesus Lizarazu	1:12:09	Zumarraga	4145	Juan M. Aldanondo	1:42:06	Urretxu
110	Igor Pérez	1:12:10	Zumarraga	4585	Irure Sasieta	1:43:57	Zumarraga
310	Benito Martínez	1:17:20	Urretxu	4623	Jakes Antia	1:44:07	Urretxu
341	Josu Pérez	1:17:43	Urretxu	4771	F.J. Mendiluze	1:44:45	Zumarraga
421	Jose Maria Igartza	1:18:54	Urretxu	4838	Kepa Etxaniz	1:45:04	Zumarraga
472	Roberto Larraza	1:19:44	Urretxu	4873	Joxe Lizarralde	1:45:11	Zumarraga
539	Peio Plazaola	1:20:36	Zumarraga	4962	Xabier Bermejo	1:45:35	Zumarraga
651	Aitor Lizarazu	1:21:47	Urretxu	5004	Xabier Chico	1:45:46	Urretxu
667	Anex Sasieta	1:21:55	Urretxu	5363	Valentín Godoy	1:47:14	Urretxu
837	Asier Aranburu	1:23:22	Zumarraga	5367	Miguel Cristobal	1:47:15	Urretxu
885	Ricardo Veleda	1:23:51	Zumarraga	5369	Francisco Parra	1:47:15	Urretxu
1157	Miguel Plaza	1:25:58	Zumarraga	5775	Jose M. Bengoa	1:49:25	Zumarraga
1276	Jesus M. Martínez	1:26:44	Zumarraga	5996	Roberto Corera	1:49:59	Zumarraga
1320	Karlos Irizar	1:27:05	Zumarraga	6093	Bienve de la Cova	1:50:24	Zumarraga
1367	Aitor Telleria	1:27:25	Zumarraga	6340	Aritz Arbizu	1:51:19	Urretxu
1596	Jesus M. Cuñado	1:28:44	Zumarraga	6415	Mikel Telleria	1:51:43	Zumarraga
1640	Joaquín Menor	1:28:58	Urretxu	6484	Eizmendi	1:52:01	Zumarraga
1721	Juan Carlos Rueda	1:29:28	Zumarraga	6684	Alustiza	1:53:01	Zumarraga
1780	Iñaki Ibarzabal	1:29:40	Zumarraga	6853	Gorka Oruesagasti	1:53:52	Urretxu
1819	Luis M. Fernández	1:29:52	Urretxu	7009	Egoitz Asurabarrena	1:54:44	Urretxu
1906	Imanol Jauregi	1:30:26	Urretxu	7065	Iñaki Lizarazu	1:54:57	Urretxu
2427	Jesus M. Arrazola	1:33:34	Zumarraga	7407	Gemma Hernández	1:56:52	Zumarraga
2545	Iñaki Urkiola	1:34:15	Urretxu	7568	Jose Mari Lasa	1:57:40	Urretxu
2560	Anex Urbegain	1:34:20	Urretxu	7570	Xabier Utsa	1:57:41	Urretxu
3055	Asier Murua	1:36:54	Zumarraga	7739	Xabier Egea	1:58:33	Urretxu
3244	Jose Luis Agirre	1:37:48	Urretxu	8068	Lorea Gardoki	2:00:25	Zumarraga
3251	Roberto Maestro	1:37:50	Zumarraga	8674	Itziar Aranguren	2:04:53	Zumarraga
3673	Luis M. Torres	1:39:53	Urretxu	8891	M. Elixabete Lasa	2:07:00	Urretxu



Usua Busca Erizaina, zinegotzia

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Erizaina

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Epela.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Eskulanak, erreziklajea.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Orain jaso duguna izan da onena, pakea.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Mexikoko lehengusuak.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Astean zehar bezala.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Batere ez, gustura nago dudanarekin.

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?

Galtzerdietara.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Geriatrikoa handiatzea.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Antio.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Urretxun.

✓Zein da duzun ohiturarik okerrenea?

Erretzea.

✓Bete gabeko amets bat?

Patinatzea eta kitarra jotzea.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Jotzen ez dakidanez, beste guztirako.

✓Kantu bat.

“Cerca de ti, Señor”, eleiz abesti bat.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Zain egon.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Zintzotasuna eta gizatasuna.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Familiarengatik edo beharko lukeen edonorengatik.

✓Gaua ala eguna?

Eguna.

✓Lo egiteko zer?

Logurea.

✓Gustuko janari bat?


Txitxirio zopa.

✓Ura, ala...

Egoeraren arabera. Nafarroako ardo gorria ere bai.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Emagina izatea.



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75



A zer pareta, karakola eta barea, edo **Amaia eta Julen!!** Oraingoan ere bihurrikeriaren bat prestatzen ariko zarete. **Zorionak** eta muxu handi bat familikoan partetik.



Ainhoa, ez zaiozu ihes egin Mikel gizajoari, asko nekatzen da korrikan eta. **Zorionak**



Aintzane; zer moduz irakurketak. Ondo ikasi liburua jaunartze polita atera dadin. **Zorionak!!**



Alfon, hi bizi haiz ,hi!! Santabarbaran mokau goxoen aurrean orain ere, **Zorionak**



Seria xamar atera zara argazkian, **Mila**. Ea urtebetetzeak pozten zaituen. **Zorionak**



Arantza, oso polita atera zara zure sukalde berrian, **Zorionak!!**



Danel; nori egin diok kokka? **Zorionak** eta utzi pastela besteontzat ere.



Edorta, zorionak eta urte askotarako zure familia eta lagun partetik.



Loreak paparrean jarri eta, hala ere ezin ligatu, hau mixeria!! Lasai hartu **Iker**, iritxiko duk hire ordua!!



Gustura gizona urteak egiten dituela eta;ea urte askotarako den. **Zorionak,Iñaki**



Istekot, ez haiz hi galduko, ez!! (Baina txakurra bai, orratio!) Ostiralean gaztainak txabolari su eman presta hitzak.




Mila, koadrilaren izenean **zorionak** eta urte askotarako!!



Jose; Caiga quien caigan ateratzekoa al zara, traje berri horrekin?. **Zorionak!!**



Dantzako jantziarekin oso polita zaude, **Maialentxo**. **Urte askotarako**



Ile horiekin ez duk argazkia koloretan ateratzerik merezi. **Zorionak**, Osi koadrilakoen eta Victorren partetik!!!



Olaia, guapisi-ma!!**Urte askotarako** zure lagun partetik



Maritxu nora zoaz, eder galant hori?. Iturrian elkar ikusiko dugu.**Ondo pasa zure eguna!!**



Mikel; Zer moduz nesken atzetikan, korrika asko egiten al dute?Gureak bai!! **Zorionak**



Mila, Milaka Zorion zure familia eta lagun partetik.



Nerea, argazkian ez bazaizu ondo ikusten ere, ezagutu zaitugu,



Oihane Ez kezkatu zerrendako azkena zarena eta, ez gara zurekin ahaztu. **Zorionak**



Zure argazki baten eskan ibili gara, eta hauxe eman digute. **Zorionak Marian, Lotsati!!**



Gotzon Agirrezabal

Tf.- 943 76 72 52 -Faxa

ORDUTEGIA
astelehenetik zapatara:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00.



Ehunak eta oihalak

Tapizeriak

Kortinak

Nordikoak

Era guztietako etxerako gaiak



Amillaga 5ean denda berria duzu

Renault-en ondoan



focus



Garage San Martin

Tfnoa: 943 72 24 54 -Faxa: 943 72 20 94

Artiz Auzoa z/q.

Zumarraga

OTAMOTZ ALDIZKARIARI ZEURE BULTZADATXOA

Konturatuko zinen bezala, duela laupabost urte OTAMOTZ kaleratzen hasi ginenetik hona, aldaketa ugari izan du aldizkariak: orrialde gehiago, kalitate eta diseinu hobea, irakurle kopuru handiagoa, e.a.

Behin baino gehiagotan irakurle batek baino gehiagok galdetu izan digu aldizkaria etxeo buzoian jaso, eta ea ez al den ezer ordaindu behar. Ez pentsa horregatik ez duela gasturik.

Orainarte, herri-erakundeen dirulaguntzak, Zintzo-Mintzoko bazkideen kuotak eta publizitatea izan dira gastu horiek estaltzeko diru-iturriak.

Gaia aztertu ondoren, **borondatezko harpidetza** (suskripzioa) egiteko aukera eskaini nahi dizuegu OTAMOTZ jaso eta bazkide ez zaretenoi; beste modu batera esanda, zuk **nahi izanez gero** urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera izango duzu.

Zeuk aukeratu diru-kopurua; 1999 urtean hasiko gineteke kobraketaekin. Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

COLABORA CON LA REVISTA OTAMOTZ

Después de varios años trabajando día a día por la calidad de información en la revista OTAMOTZ, ya sois cerca de 2.000 personas quienes mensualmente recibís la misma en vuestras casas.

De cara al año 1999 os proponemos que colaboreis con una pequeña cuota anual (**suscripción voluntaria**), al objeto de afrontar los gastos que la edición de la revista conlleva a la asociación Zintzo-Mintzo.

Dinos tú mismo/a la cantidad que quieras aportar, rellenando la ficha adjunta y entregándola en la asociación Zintzo-Mintzo (C/ Labeaga 12, bajo -Urretxu-, junto a la S.D. Goierri). También puedes ingresar tu aportación en la siguiente cta. cte: **KUTXA: 0010242378**.

OTAMOTZ ALDIZKARIA BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

1.000 pzta.

1.500 pzta.

2.000 pzta.

Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria: